

OSASUN-SISTEMA PUBLIKO ETA UNIBERTSAL BATI BURUZKO EZTABAIDA POLITIKORAKO AGIRIA EUSKADIN

Irailak 19 - Europa Biltzar Etxea - 19:00

Vitoria-Gasteiz

1. SARRERA: OSASUN-SISTEMA PUBLIKO ETA UNIBERTSAL BATERAKO PROPOSAMENAK

Osasuna gizaki ororen oinarritzko eskubideetako bat da, eta hura gauzatzeko funtsezko baldintzetako bat osasun-sistema kalitadeduna erabiltzeko aukera da. Ekonomia-krisiak eta haren aurreko erantzun politikoek eragin nabarmenak izan dituzte gure ingurune osasun-sistemetan, eta horren ondorioz, halaber, herritarren artean asko handitu da osasunaren gaineko kezka. Euskal Herria ez da geratu prozesu horretatik kanpo, eta euskal gizartean ere handitu egin da osasun-sistemaren gaineko kezka, azterlan ofizialek eta iritzi-inkestek erakusten dutenez.

Hala ere, herritarrek osasunari eta osasun-politikei ematen dieten garrantzi horren aldean, gai horiek oso pisu gutxi izaten dute alderdien programa politikoetan eta, batez ere, azken hauteskunde-kanpainetako agendetan. Hala, bada, osasuna eta alderdi bakoitzaren proposamen zehatzak ez dira ia eztabaidagai hartzen, eta, ondorioz, herritarrek ez dakizkitez oso ongi alderdiek gaiaren inguruan duten jarrera eta egiten dituzten proposamenak. Eta hori guztia gertatzen da nahiz eta osasuna balio gehien ematen zaion gaietako bat den, eta Euskadiko osasun-sistema, herritarrek gehien balioesten duten erakundeetako bat.

Ekimen honen helburua da hurrengo legealdian Eusko Jaurlaritza gidatzeko xedea duten alderdi politikoek osasun-politikaren arloan egiten dituzten proposamenen zabalkundea hobetzea eta eztabaida bultzatzea osasun-sistema publiko bat erabiltzeko aukera unibertsalari buruz. Horren xedea da euskal herritarrek botoa emateko eskubidea modu informatuagoan erabili ahal izan dezaten eta Euskadiko eztabaida politikoan osasun-sistema publiko, unibertsal eta kalitadedun baten defentsak protagonismo handiagoa izan dezan.

Helburu horri loturik, agiri honetan eztabaidaren dimentsio eta ardatz nagusiak bildu dira, osasun-sistemaren inguruko funtsezko bi gai zehatz aztertu eta gero ondorioztatuta: osasuna eskuratzeko eta zaintzeko aukeretan dauden desparekotasunak, eta osasun-sistemaren pribatizazioa. Dimentsio horiek ez dute barne hartzen osasun-politika guztia, eta badira beste gai batzuk ere osasun-sistemaren egoeran eta bilakaeran funtsezkoak direnak, hala nola giza baliabideen politika edo gauzatzeari eta kalitateari buruzko funtsezko adierazleak. Hala ere, agiri honek lehen aipaturiko bi gaietan jarriko du arreta, funtsezkoak izan baitira, frogatuta geratu denez, gure erkidegoan osasun-sistema erabiltzeko aukera ekitatiboa egon dadin bermatzeko.

Horrela, Medicus Mundik eta Euskal Herriko Unibertsitateak aurrera eramandako ikerketa-prozesu batean identifikatu diren dimentsio horietatik abiatuta, Euskadiko alderdi politikoen jarrera zein den jakin nahi da, bai eta osasun-sistema publiko, unibertsal eta kalitadedun bat bermatzeko gutxieneko proposamen batzuetan zer konpromiso-maila hartzen duten ere. Proposamen horiek osatzeko, kontuan hartu dira bai aipaturiko ikerketaren emaitzak, bai beste erakunde batzuek eginiko proposamenak, azken horien artean Osasun Foroak taxututako neurriak nabarmentzen direlarik.

Zehazki, agiri honetan jasoriko informazioa oinarria izango da Eusko Legebiltzarrerako 2016ko hauteskundeetan parte hartzen duten bost alderdi nagusien arteko eztabaida bat planteatzeko, eta hauteskundeen aurretik euskal herritarren artean zabalduko den laburpen-agiri bat prestatzeko.

2. DESPAREKOTASUN SOZIALAK OSASUN-ARLOAN ETA OSASUN-SISTEMA ERABILTZEKO AUKERAREN ARLOAN

Osasun-arloko desparekotasun sozialak

Talde sozial batekoak edo bestekoak izateagatik (gizarte-klasea, bizilekua, etnia edo sexua), osasun- eta ongizate-egoera bat izateko pertsonen duten aukerei dagozkie osasun-arloko desparekotasunak. Euskadi ere errealitate horren barruan dago; horrela, esaterako, auzoen arteko bizi-itxaropenen aldea 10 urtekoa ere bada gizonetan. Halaber, beheragoko gizarte-klase batekoa edo emakumea izateak edo ikasketa-maila apalagoa edukitzeak osasun fisikoaren edo mentalaren aldetik egoera okerragoa izateko posibilitatea handitzen dute. Osasun-arloko desparekotasun sozialek duten garrantzia hain da handia, non kalkulatu baita Euskadin desparekotasun sozialak heriotza gehiago eragiten dituela, zenbait faktore klasikok baino, tabakismoak kasu.

Hori dela-eta, Osasunaren Mundu Erakundeak eta antzeko beste erakunde batzuek desparekotasunak gai garrantzitsuenen artean kokatu dituzte, gobernuen osasun-politiken barruan aztertzeke. Euskadiko azken osasun-planek ere kokatu dituzte desparekotasun sozialen murrizketa beren helburu nagusien artean.

1.jarrera. Ordezkatzen duzun alderdi politikoari dagokionez, badu zure alderdiak proposamen zehatzen bat osasun-arloko desparekotasun sozialei aurre egiteko? Zein? Helburu eta/edo ekintza zehatzik proposatzen da?

Osasun-sistema erabiltzeko aukeren arloko desparekotasunak

Osasun-arloko desparekotasun sozialen jatorria askotarikoa bada ere, eta hainbat faktoreren ondoriozkoa (egoera ekonomikoa, lan-merkatua, etxebizitza eta beste determinatzaile sozial batzuk), osasun-sistema funtsezko elementua da, eta hura erabiltzeko aukera ekitatiboa oinarritzko baldintza da osasun unibertsala izateko. Horri dagokionez, ikerlanek erakusten dute badirela faktore sozioekonomikoetan oinarrituriko desparekotasunak, bai sistema erabiltzeari dagokionez, arreta espezializatuan batik bat, bai osasun publikoak estaltzen ez dituen zerbitzuei dagokionez, eta jasotako tratamenduaren kalitatean. Gainera, azken urte hauetan hartu diren neurri politikoek kolektibo jakin batzuk osasun-sistematik baztertzea eragin dute. Euskadiren kasuan, desparekotasun horiek aztertzeke bide ematen duten lanak egon arren, horren inguruko ebidentzia eskasa da, batez ere arretaren kalitateari loturiko faktoreen aldetik, ez baita baliatzen gaur egungo informazio-iturrien potentzial guztia.

2.jarrera. Ordezkatzen duzun alderdi politikoari dagokionez, zer jarrera du zure alderdiak osasun-sistema erabiltzeko aukeraren aldetik dauden desparekotasunei aurre egiteko garaian? Badu zure alderdiak proposamen zehatzen bat gai horren inguruan? Zein? Helburu eta/edo ekintza zehatzik proposatzen da?

Horrez gain, egindako ikerketaren emaitzek zenbait gomendio iradokitzen dituzte arlo horretarako, ondoren azalduko direnak. Hartzen du zure alderdiak halakoak hurrengo legealdian gauzatzeko konpromisoa, gobernuan parte hartuz gero?

1.Konpromisoa. Euskadiko osasun-sisteman erabiltzeko aukeraren aldetik eta arretaren kalitatearen aldetik dauden desparekotasunei buruzko diagnostiko bat egitea, arreta-maila batzuk edo besteak erabiltzeko aukeraz gain, beste alderdi batzuk ere barne hartuko dituen, hala nola itxarote-zerrendak, bideratzeak, interbentzioak, eta abar, eta diagnostiko horren emaitzen ondoriozko neurriak abian jartzea.

2.Konpromisoa. Hainbat arreta-prozesuren ekitate-ikuskapenak egitea, eta halakoen emaitzen ondoriozko neurriak abian jartzea.

3.Konpromisoa. Egun bazterturik dauden kolektiboei osasun-txartel indibiduala eskuratzeko aukera bermatzea.

3. OSASUN-SISTEMAREN PRIBATIZAZIOA

Osasun-sistemak pribatizatze prozesuek eta osasuna merkatu-ondasun bihurtzeak munta handiko ondorioak dakartzate herritarrek osasuna eskuratzeko aukeraren aldetik zein osasun-arloko desparekotasun sozialak handitzearen aldetik. Herritarrek oso balioesten dute Euskadiko osasun-sistema, eta haietatik gehien-gehienak haren ezaugarriak aldatzearen aurka agertzen dira: zergen bidezko finantzaketa publikoa eta erabiltzeko aukera “unibertsala”. Nahiz eta osasunaren pribatizazio-maila beste ingurune batzuetan baino apalagoa den, osasun-sistemaren pribatizazioari lotutako garrantzizko zenbait alderdi gutxi zabaldu eta publikoan gutxi eztabaidatu dira, eta halakoen inguruan, hain zuzen, alderdi politikoek duten jarrera ezagutzea merezi du. Halaber, Euskal Herria ez dago isolaturik osasun-sistemaren pribatizazioa bultzatzen nazioarteko joeretatik, hortaz, komeni da herritarrek jakin dezaten zer iritzi eta konpromiso dituzten alderdi politikoek osasun-sistema publikoari buruz.

Finantzaketaren eta aseguramenduaren pribatizazioa

Pribatizazioaren inguruko gai garrantzitsuenetako bat da osasun-zaintzaren finantzaketari eta aseguramenduari dagokiona. Euskadin, datuen arabera, osasun-gastuaren % 27 pribatua da. Ehuneko horrek gora egin du krisiaren urteetan zehar, osasun-sistemaren finantzaketa publikoak behera egin duen urte batzuetan, hain zuzen.

Gastu pribatuaren barruan, etxeek zuzenean egiten duten gastua nabarmentzen da oso. Hala, ingurune herrialdeekin konparaturik, Euskadik ehuneko handia du etxeek egiten duten zuzeneko ordainketan, Herbehereetan, Frantzian eta Ingalaterran, besteak beste, dagoenaren bikoitza baino gehiago, zehazki. Euskadiko osasun-sistemaren ezaugarriak dira osasun-gastu guztian etxeen zuzeneko ordainketak duen pisu handiaren azalpena. Gastu pribatuaren

bigarren iturri garrantzitsu bat aseguru pribatuena da; hain zuzen, gastu guztian duten pisuak gora egin du azken urteetan. Kalkulatzen denez, EAEko herritarretatik % 15-20k osasun-aseguru pribatua dauka.

Finantzaketa eta aseguramendu pribatuek badituzte ondorio batzuk. Lehenik, horrek desparekotasun handiak sortzen ditu osasun-arreta eskuratzeko garaian, eta pentsatzekoa da, finantzaketa pribatuak handitzen jarraitzearen ondorioz, desparekotasunak areagotu egingo direla osasun-arreta eskuratzeko aukeran. Bigarrenik, finantzaketa pribatua eta, ondorioz, osasun-sistema pribatua handitzea mehatxua da sistema publikoarentzat. Zenbaitetan, nabarmentzen da osasun pribatuak osasun-sistema publikoari zama kentzen diola, kostuetan aurrezten da-eta. Alabaina, osasun pribatua egotea mehatxua izan daiteke sistema-publiko kalitadedun batek legitimotasun soziala izan dezan eta iraun dezan.

3.jarrera. Ordezkatzen duzun alderdi politikoari dagokionez, zer jarrera du zure alderdiak sistemaren finantzaketaren eta aseguramenduaren pribatizazioari buruz? Badu zure alderdiak proposamen zehatzak bat gai horren inguruan? Zein? Helburu eta/edo ekintza zehatzik proposatzen da?

Horrez gain, egindako ikerketaren emaitzek zenbait gomendio iradokitzen dituzte arlo horretarako, ondoren azalduko direnak. Hartzen du zure alderdiak halakoak hurrengo legealdian gauzatzeko konpromisoa, gobernuan parte hartuz gero?

4.Konpromisoa. Osasunaren finantzaketa publikoa handitzea, legealdian zehar 2009ko mailara itzuli arte.

5.Konpromisoa. Osasunaren finantzaketari eta osasun-aseguramenduari buruzko informazio-iturriak hobetzea, estatuko zein nazioarteko gobernuak dauzkatenen pare jarri arte, eta halakoen gardentasuna hobetzea.

6.Konpromisoa. Osasunaren finantzaketa pribatua % 25en azpian koka dadin lortzea legealdiaren bukaerarako.

7.Konpromisoa. Osasun-sistema publikoak estaltzen ez dituen hainbat zerbitzu sistema barruan sartzea edo zati batean estaltzen direnen estaldura hobetzea (aho-hortzen osasuna, fisioterapia eta psikologia nagusiki).

8.Konpromisoa. Herritarrek osasun-sistema publikoaz dituzten pertzepzio eta balioztapenaren inguruko informazio-iturriak hobetzea.

9.Konpromisoa. Aritu independentez osaturiko talde baten lanean oinarri hartuta, osasun-sistemaren kalitateari buruzko adierazle batzuk ezartzea, bai eta euskal herritarrek osasun-sistemaren inguruan duten konfiantza eta balioztapenari buruzko adierazleak ere (estaldura pribatua, erabilera, balioztapena, etab.). Adierazle horien jarraipena egitea eta legealdian zehar hobera egin dezaten lortzea.

10.Konpromisoa. Aseguramendu-sistemak osasun-sistema publikoan sar daitezen galdegitea, batez ere MUFACE, MUGEJU, ISFAS.

11.Konpromisoa. Osasun-aseguru pribatuek inongo zerga-arinketarik izan ez dezaten lortzea.

Zerbitzu-ematearen pribatizazioa

Pribatizazioaren beste dimentsio bat da zerbitzu-emateari dagokiona, hau da, administrazio publikoek osasun-zerbitzuak enpresa pribatuen bidez edo publikoak ez diren beste erakunde batzuen bidez emateari. Zerbitzuen finantzaketak publiko izaten jarraituko balu ere, enpresa pribatuekin itunak edo kontratuak eginez bideratuko litzateke. Euskadin, 2013an, osasun-aurrekontu guztiaren % 7,1 osasun-sistema publikotik kanpo itundu zen, 242 milioi euro, guztira. Itun horien zati handi bat osasun-garraioarena da (57 milioi). Nabarmentzekoak dira, halaber, antolakunde handi batzuekin eginiko itunetarako zenbatekoak, hala nola Onkologikoarekin (23 milioi) edo Asuncion Klinikarekin (20 milioi). Aipatzekoa da, halaber, osasun mentalaren ituntze-maila, bi ordena erlijiosorekin batik bat, Aita Meni (12 milioi) eta San Joan Jainkoarena (13 milioi) direlakoekin, hain zuzen. Euskadiko osasunaren ituntze-maila tartekoa da, gainerako autonomia-erkidegoekin konparatuz gero, eta bere horretan mantendu da azken urteetan. Alde handiak daude lurralde historikoen artean, eta, hala, ituntze-mailarik handiena Gipuzkoan dago, itundutakoaren ehunekoa Arabakoa halako hiru izanik lurralde horretan.

Osasun-itunez gain, Osakidetza osasun-arretari loturik ez dauden zerbitzuen zati bat esternalizatzen du. Hala, 2015ean, aurrekontuaren % 3,5 erabili zuen, 82 milioi euro, zeharkako hainbat lan (sukaldea, garbiketa eta mantentze-lanak, nagusiki) enpresa pribatuekin azpikontratatzeko.

4.jarrera. Ordezkatzen duzun alderdi politikoari dagokionez, zer jarrera du zure alderdiak osasun-zerbitzuak esternalizatzeari eta ituntzeari buruz? Aldaketarik proposatzen da: areagotzea, sistema publikoan sartzea edo kentzea? Horren inguruko beste neurriren bat proposatzen da?

5.jarrera. Ituntze-prozesu horien artean, kasu batzuek gizarte zibilak mobilizazioak egitea eragin dute, edo eztabaida bizia sortu dute hedabideetan. Horregatik, interesgarria da zuk ordezkatzen duzun alderdi politikoaren iritzia, Onkologikoarekin eta Asuncion Klinikarekin eginiko itunei buruz.

Horrez gain, egindako ikerketaren emaitzek zenbait gomendio iradokitzen dituzte arlo horretarako, ondoren azalduko direnak. Hartzen du zure alderdiak halakoak hurrengo legealdian gauzatzeko konpromisoa, gobernuan parte hartuz gero?

12.Konpromisoa. Sektore pribatuarekin egiten diren itunen politika berraztertzea, itun-mota nagusien zein enpresa nagusien kostua eta kalitatea balioztatzea. Dauden aukera guztien ondorio ekonomiko eta sozialak aztertzea. Eraitza horien gardentasuna bermatzea.

13.Konpromisoa. Osakidetzaren esternalizazio-politika berraztertzea, eta haren kostu-eraginkortasuna aztertzea, alde ekonomikotik zein sozialetik. Eraitza horien gardentasuna bermatzea.

14.Konpromisoa. Osasun-itunetarako erabiltzen den ehunekoak, osasun-arretarako gastu guztiaren aldean, hurrengo legealdian behera egin dezan bermatzea.

15.Konpromisoa. Osakidetza esternalizazioetarako erabiltzen duen ehunekoak, Euskal Osasun Zerbitzuaren aurrekontuaren aldean, hurrengo legealdian behera egin dezan bermatzea.

16.Konpromisoa. 15/97 Errege Dekretuak ahalbidetutako kudeaketa pribatuko formulak, orain arte Euskadin erabili gabeak, ez erabiltzea.

17.Konpromisoa. 15/97 Errege Dekretuak ahalbidetutako kudeaketa pribatuko formulak, orain arte Euskadin erabili gabeak, erabiltzea galarazten duen lege bat onartzea.

Osasun-prestakuntzaren pribatizazioa

Pribatizatu egin daitekeen beste dimentsio bat osasun-prestakuntza da. Estatuko Osasun Sistemak (SNS) bere profesionalen prestakuntzarako finantzaketa murriztu izanak eta osasun-industria prestakuntza-modalitate guztietan egoteak (mediku-bisitariak, zientzia-bilkurak babestea, lanbide-elkarteak finantzatzea) agerian uzten dute gure profesional sanitarioen prestakuntzan interes-gatazkak duen rola, bai eta etengabeko prestakuntzaren pribatizazioak herritarren osasunean eta bizitzaren medikalizazioan izan dezakeen inpaktua ere. Gradu-ikasketei dagokienez, osasun-adarreko ikasketen eskaria igotzearen ondorioz, unibertsitate pribatuetan ematen diren osasun-arloko graduak gehitu egin dira. Hori dela-eta, desparekotasun handiak sortzen dira halako ikasketetan sartzeko aukeraren aldetik. Nahiz eta egun Euskadin osasun-zientzietako unibertsitate-prestakuntza funtsean publikoa den, ikasketa horien berebiziko eskariak, batetik, eta etorkizunerako aurreikusten den profesional sanitarioen eskari handiagoak, bestetik, eragin dezakete horrelako prestakuntza negoziogai bihurtzea, eta horrek inpaktu larria izango luke desparekotasunetan, ikasketa horietan sartzeko zein osasun-sistema publikoa erabiltzeko aukeren aldetik.

6.jarrera. Ordezkatzen duzun alderdi politikoari dagokionez, zer jarrera du zure alderdiak osasun-arloko prestakuntzaren pribatizazioari buruz? Badu zure alderdiak proposamen zehatzen bat gai horren inguruan? Zein? Helburu eta/edo ekintza zehatzik proposatzen da?

Horrez gain, egindako ikerketaren emaitzek zenbait gomendio iradokitzen dituzte arlo horretarako, ondoren azalduko direnak. Hartzen du zure alderdiak halakoak hurrengo legealdian gauzatzeko konpromisoa, gobernuan parte hartuz gero?

17.Konpromisoa. Azterlana egitea osasun-sistema publikoko belaunaldi-ordezkatzeari buruz eta epe labur eta ertainean beharko diren profesional sanitarioei buruz, eta osasun-

zientzietako prestakuntza publikoa etorkizuneko eskari hori betetzeko gai izan dadin bermatzea.

18.Konpromisoa. Publikoak ez diren erakundeak osasun-arloko graduen prestakuntzarako osasun-sistema publikoaz balia ez daitezen bermatzea.

19.Konpromisoa. Sistema publikoko profesional sanitarioen prestakuntzan administrazio publikoak lidergoa izan dezan bermatzea

20.Konpromisoa. Industria farmazeutikoaren ordezkariak eta antzekoek Osakidetzako profesionalei egiten dizkieten bisiten edukia eta iraupena arautzea, zentro publikoetatik desagertu arte.

21.Konpromisoa. Osasun-sistema publikoaren zentroetan industria farmazeutikoak aurrera eramaten dituen saio, hitzaldi, ikastaro, lantegi edo gainerako prestakuntza-jardueren interes-gatazketan gardentasuna bermatzea.

Pribatizazioari loturiko beste gai batzuk

Azkenik, neurri orokor batzuk proposatzen dira, Euskadiko osasun-sistemaren pribatizazioa eragozteko, hartzen du zure alderdiak halakoak hurrengo legealdian gauzatzeko konpromisoa, gobernuan parte hartuz gero?

22.Konpromisoa. Sistema publikoko profesionalek sektore pribatuarekin duten bateragarritasunari buruzko politika berraztertzea, bateraezintasuna ezartze aldera, kontratu berrietan behintzat, bai eta osasun-zentro publiko guztietako ardura-karguetan ere.

23.Konpromisoa. Aditu independentez (pertsonek zein erakundeak) osaturiko talde baten bidez, Euskadiko osasun-sistemaren pribatizazioari buruzko diagnostiko bat egitea, eta legealdi guztian diagnostikoa urtero errepikatzea.